

Gozatu bere naturaz



Aiaraldean, inolako zalantzarik gabe, natura harmonia ezin hobean bizi da bere landa-ingurunearekin eta biztanle gehien dituzten guneeekin.

Eskualdearen leloak berak dioen bezala, **“helmuga paisaia da”**, batik bat, aintzat hartzen badugu eskualdearen balio eta xarma guztia natura oparako inguru batek inguratzeko duela.

Horren adibide garbia dira, besteak beste, **Nerbioiko ur-jauzia**, **Gorobel mendilerroa** edo **Maroñoko urtegia**.

Egiaztatu ezazu: Aiaraldeako **ondare** guztia paisaia-edertasun handiko parajeetan dago.

Baina, ez ahaztu, halaber, **txakolin-mahastiak**, Aiara haraneko ardo nagusiaren mahastiak, zeinak, lauan edo magaletan, paisaia paregabea sortzen duten, mahatsondoek urtaro bakoitzean izaten duten kolore-aldaketarekin.

Baliatu natura-baliabide hauek bakarrik edo norbaitekin, familiarekin edo lagunekin gozatzeko.



Natura-ondarea

- 1 Nerbioi ur-jauzia
- 2 Gorobel mendilerroa (Fraidearen tontorra, Txarlazo, Tologorri eta Ungino)
- 3 Maroñoko urtegia
- 4 Esquina de Rubén behatokia
- 5 Menoioko Etxaurren basiliza
- 6 Ganekogorta



Ibilbideak

- 1 GR 284 Sopeñako Errege Bidea
- 2 Nerbioiko Parke Lineala
- 3 Burdin Hesiaren ibilbidea
- 4 PR-A 37 Aspaltza Zirkularra

Historia-ondarea

- AYALA / AIARA**
- 1 Luiaondo Malato zuhaitza
 - 2 Murga Dorretxea
 - 3 Olabezar Saraubeko zelaia
 - 4 Quejana / Kexaa Monumentu-multzoa
 - 5 Añes San Bizenteko portada erromanikoa
- AMURRIO**
- 6 Santa Maria elizako erretaula
 - 7 Mariaka dorrea
 - 8 Elexazarreko aztarnategi erromatarra
- ARTZINIEGA**
- 9 Ortiz de Molinillo eta Velascoren dorretxea
 - 10 Hirigune historikoa
 - 11 Ama Agustindarren komentuen portada
 - 12 Pablo Respaldizaren Sutegia
 - 13 Arteako Andra Mariaren Santutegia
- LAUDIO / LLODIO**
- 14 Anuntzibaiko jauregia, zubia eta burdinola
 - 15 Katuxa jauregia
 - 16 Lamuza parkea
 - 17 Ermualde
 - 18 Ugarte dorretxea
- OKONDO**
- 19 San Roman eliza

Txakolin-upategiak

- 1 Artomaña (610 33 41 37)
- 2 Astobiza (607 40 03 21)
- 3 Beldui (685 75 76 48)
- 4 Garate (659 06 03 91)
- 5 Txikubin (Murga dorretxea) (659 01 00 17)

Birding

- 1 Gorobel mendilerroa

Museoak

- 1 Amurrio Manuel Acha Likorearen Museoa (945 39 37 04)
- 2 Artziniega Etnografia Museoa (945 39 62 10)
- 3 Artziniega Santxotena tailer-museoa (945 39 66 64)
- 4 Artziniega Eleiz Museoa (945 39 60 66)

Lehentasunezko jarduketarako eremuak, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin. Zonas de Actuación Preferente con la financiación de Gobierno Vasco.



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

araba álava
foru aldundia diputación foral



INFORMAZIOA
Amurrio (945 39 37 04)
Laudio/Llodio (94 403 49 30)



www.aiaraldea.org



Maroño eta Gorobel mendilerroa



Otazuko Erdi Aroko zubia



Nerbioiko Parke Lineala



Nerbioiko ur-jauziko begiratokia



Txakolin-mahastiak



Delikako arrolla



Burdin Hesia

paseoak familian

Aiaraldeak aukera ugari eskaintzen dizue familiarekin naturaz gozatzeko. Gogoan hartu:

Goikomendi-Kuxkumendi natur parkea. 46,7 hektarea dituen baso-eremu babestua da. Bi ibilbide ditu: batetik, Goikomendi ibilbidea dugu. 1,5 kilometro ditu, eta landaredi autoktonoko horretan aspaldiko garaietan gizakiek egiten zizutzen jardueren adierazpena da; eta, bestetik, Kuxkumendi ibilbidea, 2 kilometrokoa, zeinetan hainbat zuhaitz-espezie aurki ditzakegun, autoktonoak zein exotikoak.

Nerbioi ibaia, zeina urteetan zehar eskualdeko industria txikien eta handien arteko lotune izan den, aldatu egin da azken hamarkadan, eta ingurune erakargarria eta ingurumen aldetik zaindua bihurtu da, gaur egun **Nerbioiko Parke Linealean** zehar goza dezakeguna. Ibilbideak, 10 km-tan zehar, Laudio/Llodio, Ayala/Aiara eta Amurrio herriak, historiaz betetako baserriak eta edertasun naturala eza-gutzeko aukera eskaintzen du. Oso aproposa da bizikletaz zein oinez egiteko, eta zailtasun txikikoa.



Etxaurreneko basiliza

Goiz bat ere eman dezakegu **Etxaurreneko basilizarako** ibilbidea egiten, eta, hala, Gorobel mendilerroaren bista zoragarriak izango ditugu eskura.

Nerbioiko ur-jauzia da Aiaraldeko ezinbesteko baliabideetako bat; izen bereko ibaiaren iturburua da, Bilboko Itsasadarren jatorria. 220 metroko ur-jauzia du, eta penintsulako altuena da. Goialdeko **behatokitik** ikus daiteke, bai eta behetik ere, **Delikako arrolla** zeharkatuz. Oso erraza eta denontzat irisgarria da behatokia iristea, eta bistek ez zaituztete epel utziko.

Beste interesgune bat **Maroño**ko urtegia da, hegazti migratzaileen igarobidea. Eta arrantza zaleentzat, martxotik irailera bitartean altxa egiten da debekualdia.

Urtegiaren atzealdean, **Gorobel mendilerro** handia dago; alde batean, 300 metroko desnibela duen izugarritzko horma harritsu bat du, eta, bestean, zelai berde zabalak eta zuhaitzi handiak, nagusiki pagadiak.

Hego-ekialdean Santiago mendia eta ipar-mendebaldean Angulo mendatea bereizten dituzten 20 kilometroetan zehar **Tologorri**, **Ungino** eta **Txarlazo** dira murrutik zeharkaezin horretako gailurrik esanguratsuenak eta zortzen duten profila enblematikoa da eskualdean, baita Euskadiko mendizaleen artean ezagunetako bat ere.

Gorobel mendilerroko ibilbidean zehar, artzaintzarekin zerikusia duten eraikuntzak aurkituko dituzu, hala nola bordak eta aterpetxeak, historiaurreko aztarnez gain.

Loberak (otsoak ehizatzeko zuloak) ere aurkituko dituzue, eremuko eraikin bitxiak. Horietako asko egoera onean daude, eta aukera ematen dute otsoak ehizatzeko antzinako sistema erabat ikusi eta interpretatzeko. Ezagunak dira Gibijoko, Santiago mendiko eta San Migeleko loberak.

Mendi-ibilbideak aukeran

Baranbio herritik iristen da **Garrastatxura**. Han, Piedadeko Andre Mariaren basiliza aurkituko duzu; eskualdeko bista zoragarriak ditu.

Xendazale aurreratuagoentzat, **GR-284 Sopeñako Errege Bidea** dugu, Gorobel mendilerroa, Urduñatik Mena haranera, zeharkatzen duen ibilbidea. **GR 282 Artzaintzaren Bidea** ere igarotzen da eskualdetik. Bide horrek 485 km egiten ditu 19 etapatan zehar, eta horietako bik Aiaraldea zeharkatzen dute. Zehazki, eskualdera, Nerbioi ibaiaren ur-jauzira iristen da, eta bideari jarraitzen dio Gorobel mendilerroak eratzen duen aurrealde karstiko zoragarria inguratuz, Santiago mendiko Monumentu Naturalaren bidez.

15,6 kilometroko ibilbide zirkular bat dago, Amurrioko kiroldegitik hasi eta bertan amaitzen dena; **PR-A 37 Aspaltza Zirkularra** da. Ibilbideak udalerriko mendi publikoko ekosistema babestuak igarotzen ditu.

Bada 5 km inguruko beste ibilbide zirkular bat: **Burdin Hesia** Gerra Zibilean Bilboko defentsa-lerroan parte hartu zuelako du izen hori. Ibilbidean zehar, trintxerak eta metrailladore-habiak bisita daitezke.

Mendi-ibilbideei buruzko informazio osatuagoa



Esperientzia gehiago familian

